




Zerbitzuetako jarduera %1,1 jaitsi zen apirilean

Zerbitzuen negozio zifra
Urte bakoitzeko apirila. Indizea




Iturria: INE.

INEk argitaratutako azken datuen arabera, **apirilean zerbitzuen negozio zifra %1,1 murriztu zen urte arteko aldakuntza tasan**. Hala ere, lortutako maila apiril batean jaso den bigarren handiena da, aurreko urteko erregistroaren ondoren. Jarduera zertxobait txikiagoa izan bazen ere, enplegua %1,4 igo zen 2022ko hil beraren aldean.

Atzerritarren afiliazioak gora egin zuen maiatzean

Atzerritarren afiliazioa
Balio absolutua




Iturria: Gizarte Segurantza.

Gizarte Segurantzaren kotizatzen zuten atzerritarren afiliazioen kopurua %13,1 igo zen maiatzean, aurreko urteko hileko beraren aldean. Zehazkiago adierazita, atzerriko nazionalitatea zuten pertsonen afiliazioak 88.878 izan ziren guztira, serie historiko osoko erregistrorik handiena baita.



Hoteletako gaualdiek gora egiten jarraitzen dute

Hoteletan igarotako gaualdiak
Urte bakoitzeko maiatza. Milakoak




Iturria: Eustat.

Maiatzean, hotel establezimenduetan igarotako gaualdiak %12,3 gehitu ziren aurreko urtearen aldean. Guztira, 632.000 gaualdi erregistratu ziren, serie historiko osoko kopururik handiena. Nabarmentzekoa da atzerritik Estatutik baino jende gehiago etorri zela.

Etxebizitzen gaineko hipoteka berrien kopurua jaitsi da

Etxebizitzen gaineko hipotekak
Urte bakoitzeko urtarriletik apirilera



Iturria: INE.

Aurtengo lehen lauhilekoan, hipoteka berrien kopurua %8,1 murriztu zen, aurreko urteko aldi beraren aldean. Hain zuzen ere, apirilera arte etxebizitzen gaineko 6.700 hipoteka baino gehiago eratu ziren EAEn. Era berean, mailegatutako kapitalak ere behera egin zuen, aurreko urteko aldi berean baino %8,6 gutxiago erregistratuz.